



Arartekoaren 2013ko irailaren 23ko ebazpena. Horren bidez, Ingurumen Sailak ingurumen-informazioaren eskaera bati emandako erantzuna agerian jartzen da.

Aurrekariak

1. Ingurumena defendatzeko (...) plataformaren ordezkari batek jakinarazi digunez, ez zaio erantzunik eman Mutrikuko Portuko arrantza-dartsenaren proiektuari buruzko ingurumen-informazioaren eskaera bati.

Kexa-idazkian azaldu zenez, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren Portu eta Aireportuen Zuzendaritzari egindako eskaerak -2013ko apirilaren 11koak, hain zuzen ere- informazio eta agiri jakin batzuk eskatzen zituen berariaz. Informazioa eskatu zen, zehazki, proiektuen administrazio-espeditari eta ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio-espeditari buruz, Mutrikuko kirol-portuaren proiektua egiteko kudeaketa EKP SA sozietateari agintzea onartzen duen ebazpenari buruz eta Mutrikuko porturako itsas sarbidearen hobekuntza amaitzeko proiektu berriari aplikatu behar zaion legediaren gaineko espeditari buruz.

Eskaeran azaltzen da eskatutako informazio eta dokumentazioa ingurumen-informaziotzat jotzen dela inguru naturalaren egoeran eragina eduki dezakeelako, kasu honetan, itsas eta lurreko jabari publikoan, baita haren babesean eta ingurumenaren kontserbazioan edo defentsan ondorioak izan ditzaketen administrazio-jardun edo -neurriengan ere. Hala, ingurumen-arloko informazioa eskuratzeko, publikoki parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legea aipatu du.

Bere kexan adierazi duenez, berariazko eskaera egin zuenetik bi hilabete baino gehiago igaro diren arren, ez du erantzunik jaso eta horregatik eskatu dio Arartekoari esku hartzeko.

2. Erreklamazio hau tramitatzea onartu denez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari informazioa eskatu diogu ingurumen-informazioaren eskaera honi erantzuteko jarraitu diren jardueri buruz, eta, bereziki, pertsona interesdunei horren harira bidali zaizkien jakinarazpenei buruz.





Ingurumen Sailak txostena bidali digu (2013ko uztailaren 20an jaso), eta, bertan, egindako eskaerak harrera-ordenan erantzuten direla azaldu du. Horrenbestez, sail honetara iristen diren eskaera anitzak, batez ere uda garaian, premien eta ebazpen-lehentasunen arabera erantzuten dira. Kasu honetan, eskaeretan aipatzen diren espedienteak duela asko tramitatu ziren eta ez dirudi premiazko jardueri buruz ari direnik. Hala ere, sailak dio hainbat hartu-eman izan duela ingurumena defendatzeko *“Mutriku Natur Taldea”* plataformarekin eta Mutrikuko portuari buruzko informazioa eta dokumentazioa trukatu dutela. Bilera bat egitea ere aurreikusita zegoen.

Sailak adierazi du hala eskatzen duten erakundeen eta partikularren eskaerei une oro erantzuna ematen ari dela. Halaber, esan du al bait lasterren erantzungo dituela eskaera horiek; hori bai, lan-zama ikusita, beharrezkoa dela lehentasunak ezartzea.

3. Bestalde, erreklamazioa egin duen plataformak jakinarazi digunez, 2013ko uztailan bilera bat egin zen Eusko Jaurlaritzako Portu Zuzendaritzarekin eta, bertan, oro har joratu ziren Mutrikuko Portuko Plan Bereziarekin lotutako alderdi batzuk. Era berean, *“Estudio de las condiciones de agitación en la zona tras el nuevo dique exterior de Mutriku”* izenekoa jaso izana adierazi du. Edonola ere, Mutrikuko Portuko barne-dartsenaren berrantolaketarekin lotutako informazioa bidaltzeke dago, bai onartutako proiektuen administrazio-espedienteari dagokionez, bai, hala badagokio, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioko udal-txostenei dagokienez. Halaber, kirol-portua egiteko kudeaketaren aginduari eta Mutrikuko portuaren itsas sarbidearen hobekuntza amaitzeko proiektuari buruzko informazioa eskatu dute.

Gaur egun, oraindik ez dugu azken eskaera honi emandako erantzunaren baieztapenik jaso.

Informazio hori eta kexaren bultzatzaileak alegatutako beste inguruabar batzuk ikusita, eta edukiak aztertu ondoren, honako gogoetak helarazi nahi nizkizuke.



Gogoetak

1. Kexa honen jatorria talde kexagileak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailean planteatutako eskaeraren erantzun-falta da.

Erreklamazioan arrantza-dartsena berrantolatzeke proiektuari buruzko ingurumen-informazioa eskatzen da. Zehazki, Mutrikuko portuko barne-dartsena egokitzeko obra-proiektuaren ingurumen-kontrolari eta itsas sarbidearen hobekuntza amaitzeko proiektu berriari buruzko informazioa da eskatu dena.

Ararteko erakundeak aurrekarietan azaldutako kudeaketak egin ondoren, ikusi du ez dagoela kexagilearen asmoari emandako erantzun eraginkorrik.

2. Gogorarazi beharra dago, oro har, herri administrazioek betebeharra dutela interesdunek egiten dizkieten eskaerei azkar, eraginkortasunez eta bizitasunez erantzuteko, behin betiko ebazpena edo espedientearen amaiera iritsi arte.

Kasu honetan, 2013ko apirilaren 11ko idazkiaren bidez eskatu zen informazioa.

Azaldu dutenez ezin izan dute erantzuna antolamenduan aurreikusitako epean eman, baina azaldutako arazoak ez du esan nahi ez direnik bete behar herritarrek administrazio ona jasotzeko duten eskubidearen betebeharrak. Hau da, kasu honetan eskaera jaso izana jakinarazi beharko lukete eta erantzuna arazoizko epean eman.

3. Plataformak eskatutako informazioari dagokionez -besteak beste, ingurumenaren ebaluazioa eta arrantza-dartsena berrantolatzeke proiektuaren egikaritzari eta Mutrikuko portuaren itsas sarbidearen hobekuntzari buruzko txostenak-, informazio hori ingurumenekoa dela esan genezake.

Ingurumen-arloko informazioa eskuratzeko, publikoki parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legeko 2.3.d) artikulua ingurumen-informazioztat jotzen ditu ingurumen-elementuen –itsasoko eta kostako guneak– egoerari buruzko idatzizko agiriak eta elementuok babesteko eta ingurumen-legedia betetzeko administrazio-neurriak.





Aipatu Legeko 10. artikulua informazio-eskaerak tramitatzeko jarraitu beharreko prozedura eta epea ezartzen ditu. Eskatutako informazioa ez bada nahikoa zehaztu, *“agintari publikoak berau zehazteko eskatuko dio eskatzaileari eta laguntza emango dio, bere informazio-eskaera ahalik eta arinen zehazteko”*.

Epeari dagokionez, *“ebazteko eskumena duen agintari publikoak ingurumen-informazioa emango du edo berau ez emateko arrazoiak jakinaraziko dizkio eskatzaileari, kontuan hartuta eskatzaileak zehaztutako egutegia, ahalik eta arinen, eta, beranduenez, jarraian adierazten diren epeetan:*

1. Gehienez hilabeteko epean eskaera ebazteko eskumena duen agintari publikoaren erregistroan berau jasotzen denetik aurrera, oro har.

2. Bi hilabeteko epean, eskaera ebazteko eskumena duen agintari publikoaren erregistroan berau jasotzen denetik aurrera, baldin eta informazioaren bolumena eta konplexutasuna direla-eta ezinezkoa bada lehen adierazitako epea betetzea. Kasu horretan, eskatzailea jakinaren gainean jarri beharko da, gehienez hilabeteko epean, bai epearen luzapenari buruz, bai berau justifikatzen duten arrazoiei buruz.

Ingurumeneko informazioa, beraz, azkar eta lehenetsunez eskuratu behar da. Horretarako, legeriak ebazteko epe batzuk zehaztu ditu eta horiek ez dute gainditu behar hilabeteko epea, erantzuna emateko ardura daukan erregistroan eskaera jasotzen denetik. Salbuespenak dira beste hilabete bateko berariazko luzapena duten kasuak, betiere eskatzailea jakinaren gainean jarri beharko delarik.

4. Epe bereziki labur hauek informazio eskuratzeko eskubidearen izaera instrumentalari zor zaizkio. Administrazioaren erantzuna berehalakoa izatea ezinbestekoa da partaidetzaren eta ingurumen-justiziaren gainerako eskubideak bete ahal izateko.

Hori dela eta, herri administrazioek beharrezko bitartekoak jarri behar dituzte, erantzuna emateko baldintza luzaezin horien barruan ingurumen-informazioaren zerbitzua eman dadin.



Ondorioz, argi dago beharrezko bitarteko pertsonalak ez badaude edo eskaera ugari pilatu badira, kasu batzuetan ezinezkoa bihur daitekeela erantzuna hilabeteko epean edo luzapenaren ostean ematea.

Hala ere, eskaera jaso izana eta 27/2006 Legeko 10. artikuluan aurreikusitako erantzun-epea hedatu izana jakinarazi behar zaio eskatzaileari.

Era berean, adierazitako legezko betebeharrei kalterik eragin gabe, informazio hori bitarteko elektronikoen bidez bidaltzeko edo beste partaidetza-modu batzuk erabiltzeko aukera ematen duten formulak bilatu behar dira.

Teknologia berriak eta Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2006 Legearen ondoriozko betebeharrak, zalantzarik gabe, lagungarri dira dokumentazio hori bitarteko elektronikoen bidaltzeko, askoz modu errazagoan.

Gure ustez interesgarria da, era berean, informazio hori bidaltzeko beste aukera batzuk bilatzea eta ingurumen-gaietan interesa duten elkarten partaidetza sustatzea. Neurri horien barruan, administrazioaren eta elkarte hauen bilera edo topaketak eta zuzeneko komunikazioak aipa genitzake.

Azpimarratu beharra dago, bestalde, Mutrikuko portua handitzeko aurreikusitako obren harira sortu den gatazkan herri administrazio horrek ahalegin handia egin duela jardunbide on hauek sustatzeko.

Edonola ere, formula osagarri horiek ez dute murriztu behar 27/2006 Legearen ondoriozko betebeharrak, bereziki erreklamazio honetan jasotakoa bezalako kasuetan, ingurumen-informazioa jasotzeko asmo garbia erakutsi baita.

5. Azkenik, Arartekoaren abenduaren 30eko 6/2010 Gomendio Orokorra gogorarazi behar diogu Ingurumen Sailari, dokumentazio publikoa eskuratzeko eskubideari eta gardentasunari buruzkoa. Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako 2010. urteko txostenean jaso da ebazpen hori, eta, bertan, eskubide instrumental hau zuzen betetzeko balio behar duten printzipio eta gomendio batzuk aipatu genituen.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:





Gomendioa

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari, berariazko erantzuna eman diezaion Mutrikuko portuko arrantza-dartsena berrantolatzeko proiektuaren egikaritzaren eta ingurumenaren gaineko eraginaren gaineko informazio-eskaerari, ingurumen-arloko informazioa eskuratzeko, publikoki parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legean aurreikusitako eran.

Halaber, Arartekoak ingurumen-informazioaren eskaerak azkar, lehenetsunez eta legeria horretan aurreikusitako epeetan tramitatu eta ebazteko betebeharra gogorarazi du.

Horretarako, euskal herri administrazioei, legeria horren ondoriozko eginbeharrak bete ditzaten, nahikoak diren bitarteko tekniko eta elektronikoak esleitu behar zaizkie.

Interesgarria da, era berean, informazio hori bidaltzeko beste aukera batzuk bilatzea eta ingurumen-gaietan interesa duten elkarteen partaidetza sustatzea.

